

Teknikari emozionala

Alfred Krondraf

Annette Giesriegl-ek bere ahotsa esploratzen du Annette Giesriegl ahozko akrobatik ahotsaren ahalmenen hedadura osoa esploratzen du eta konfrontazioan gozatzen du, hori bai, estilo eta kultura desberdinak elkartzearen haritik. Beste musika genero batzuetan sarri gertatzen diren kontraste pentsatugabeetan ez bezala, haien joera izaten baita talka egin eta gurutzebideko etiketan erortzea edo, kasurik okerreanean, estilo kontrajarrien nahaste-borraste bat sortzea, Annette Giesrieglen lanak, zenbait estilo eta teknika erabilia, nahasketa harmoniko zirrara garria sortzen du, eta bertan ahots desberdinek bat egiten dute, beti elkarrekin elkarlanean eta inoiz ez elkarri aurka eginez.

Tiroletik Grazerara, eta handik ...

Tirolen jaioa, gaur egun Grazen bizi da, eta bertan ikasi zuen egun bikote gisa berarekin jotzen duen Jay Clayton eta Andy Bey irakasle zituela, besteak beste. Haren aniztasuna ahotsari eta musikari dagokienez nabarmena da lagun desberdinekin egindako elkarlan sarrietan eta "annett4tett" bere taldearekin egindako lanean. Haren azken CD bereziki hunkigarria, Extraplatte diskoetxeak argitaratua, honako musikari hauek grabatu zuten: Annette Giesriegl ahotsa, Stefan Heckel teklatuak, Karl Sayer baxua, eta Ingrid Oberkanins perkusioan.

"Niretzat ahotsarekin esperimentatzea da kontua, haren ñabardura eta alderdi guztietan. Ahotsak abestu eta mintzatu baino askoz gauza gehiago egin ditzake, eta nire musikan adierazpide sorta osoa erabili nahi dut", Annette Giesrieglek elkarrizketa batean dioen legez. Gizakiaren ahots ahalmenaren hedadura agortu denean, teknologia sartzen da.

dig me out

Begiztak, dub-ak eta halakoak...

Teknologia hori zuzeneko bere emanaldietan erabiltzen du, baina bere ordenagailu mugikorraren eta haren murmurio eta xuxurlen atzean egon beharrean, laguntza teknologikoa erabiltzen du soil-soilik logikoa denean eta musika gertakariari moldatzen zaionean. Hartara, etengabe zabaltzen du bere errepertorioa, eta fraseatze kantatu arnastu etenen errepikatze infinitua hasten denean, den-denak emozio sakonez bapo kargatuak ("jakina, sentipenak eta une bateko egoera emozionalak dira, baina emozio horiek guztiek ahozko teknika egokia behar dute adieraziak izateko unean"), eta inprobisatzen hasten denean fraseatze begiztatu horien gainera, emakume honek bidaia batean eramaten gaitu irudika litezkeen kultura guztietan sakabanatutako ahozko hitzen bitartez.

Bikote-kontzertu batean, Vienan irakasle izandako Jay Claytonekin, bira imajinatu bati ekin zion garai guztietako ahozko kanon inprobisatuetan barrena.

Handik egun gutxi batzuetara, berak eta Frank Schmuck-ek Vienako diseinu grafikozko galeria bateko entzuleak eskutik heldu eta ahozko zenbait kultur tradizio globaletan zehar gidatu zituzten. Bidaiak inuitengandik Asiako estepetako kantu harmonikoetara eramaten zituen, eta handik Japoniara.

Bidaia berez saria denean

Annette Giesriegl Grazen lan egin eta bizi arren eta batzuetan Tirol sorterriko mendietara erretiratzen bada ere musika inspirazio bila, hala ere bidaiazalea da, hitzaren zentzurik zintzoenean. Joan-etorrian ibiltzen da Mosku -bertan ahotsa lantzen duten errusiar emakumeekin egiten du lan-, Israel -hango tailer batean ari da lanean- eta Londres -bertako zuzeneko inprobisazioan sakon sustraituta baitago- artean, eta bidaia bakoitzetik ahozko irudipen berriak bilatu eta aurkitzen ditu, eta bere lanean txertatu. Bidaia horiek aukera berrietarakoak

dig me out

izaten dira beti, eta berak oraindik denbora izaten du "tokiko" delako artistekin lan handia egiteko.

Haren agendan hainbat eta hainbat proiektu daude, noiz gertatuko zain.

CD

Annette Giesriegl "Hear I Am", Salmentak eta zabalkundea:
Extraplatte

Web orriak

www.giesriegl.net

www.artmark.at